Arrasateko Udala
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Pertsonala**

Kaixo,

Arrasteko udaletik, Zestoako udalean **ATEZAIN lan poltsan** zaudeten hautagaiei ondoren zehazten dizuegun lan eskaintzak egiten zaizkizue:

**Lanpostuaren xehetasunak**

- Lanpostua: **Jakinarazlea (Notificador/a)**
- Sailkapen taldea: E
- Titulazioa: Eskolatze agiria (Graduado escolar)
- Hizkuntza Eskakizuna: **2, derrigorrezkoa**
- Gidabaimena: **B baimena**
- Egutegia: "2026 egutegia Jakinarazlea 1 eta 2".
    - Opor egunak, Udalhitz egunak, eta Libre hartzeko orduak proportzioan izango dira.
- Ordainsaria**:** 7. Maila. Hilean gordinik 2.100,76 € (14 pagetan)

**LAN ESKAINTZA 1:**
- **Kontratuaren arrazoia**: 7-2 kodea duen lanpostua hutsik geratuko da eta beharrezkoa da bitartekotasunez betetzea karrerako funtzionario batek bete arte.
- Ordainsaria: 7. maila (hilean gordinik 2.009,38 € (14 pagetan).
- **Jarduna:** %100
- **Hasiera:** Otsailaren 23an
- **Kontratuaren iraupena:** gehienez ere 3 urte

**LAN ESKAINTZA 2:**
- **Kontratuaren arrazoia**: 7-1 kodea duen lanpostuko titularraren aldi baterako ezintasunak irauten duen bitartean zerbitzua mantendu ahal izateko
- **Jarduna**: %100
- **Hasiera**: lehenbailehen
- **Kontratuaren iraupena:** ezintasun egoerak irauten duen bitartean

**LANPOSTUAREN ARDURAK ETA EGINKIZUNAK:**

Ardura orokorrak:
- Jakinarazpen ofizialak entregatzea (Etxez etxe eta kaleak kontrolatu behar dira). Ofizinan eta kalean egin beharreko lana da.
Eginkizun esanguratsuenak:
- Hartzaileei entregatzea jakinarazpen ofizial arruntak eta urgenteak.
- Agintzen dizkioten enkarguak, abisuak eta mandatuak egitea, udalerrian bertan edo udalerritik kanpo, bere eskura jarrita dagoen udal ibilgailuaren bidez.
- Ediktuen Taulan jartzea bidalitako ediktuak.

- Correos bidaltzen diren gutuna kontrolatu eta jarraipena egin.

Lan eskaintzan interesa izanez gero, mezu honi erantzun beharko diozue horrela azalduz, **otsailaren 13an, ostirala, goizeko 12:00ak** baino lehen.

Interesa azaldu duzuen artean lan poltsako hurrenkera jarraituko da izendapena egiteko orduan.

Mila esker

***OHARRA:*** *Jakizu, Arrasateko Udaleko lan poltsak kudeatzeko araudiaren aldaketa onartu eta 2023ko martxoaren 23an argitaratu zela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2023/03/23/c2301757.pdf*